

Jose Migel Irigoien Etxabe

*Zumaia,
Gipuzkoa (1952)*

Aurkibidea

Biografia



Arotz izandakoa, beste hainbat lanbidetan ere aritu izan da. Azken urteotan Zumaiako San Telmo ermitako zaindaria izan da: ermita garbitu izan du, txukundu, ezkontza eta elizkizunetarako prestatu... Horri buruzko elkarrizketa egin zitzaion "Zumaiako hizkera" bekarako. Elkarrizketan beste bi lagun ere azaltzen dira, Ana Mari Etxabe eta Ramon Zubia.

Zintak

ZUM-015

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-12-12
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. San Telmo, San Pankrazio eta Santa Rita, jaiak eta mezak

- **Erref:** ZUM-015/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Telmoko zaintzailearen lanak zerrendatzen ditu: garbitu, txukundu, apaizari lagundu, arropak garbitu... Lanik gehiena San Telmo egunean izaten da eta hurrengo igandean, San Telmo bigarrenegun. San Pankrazio egunean ere meza izaten zen (maiatzaren 12), eta Santa Rita egunean ere bai. Azken urteotan ez da egiten. Santu horien irudiak ere ermitan daude.

Transkripzioa

- Eta zaintzaillian, San Telmoko zaintzaillian lana zein izaten da? Zuen lana San Telmon eta...
- (Joxe Migel) Han ze lana izaten dan? Pues, aldaria garbitzia ta txukun eukitzia. Han iten deu urtian behin linpieza jenerala: eliza garbitu, fregatu, [...] dana garbitu, pixkat argizaidxa eman eta mantelak plantxatu. Ta gero bere egunian, pues, jantzi eleiza, jantzi eleiza. Eta, pues, geo, pues, apaizak jun... hamabi o hamahiru o hamabost apaiz jutun dian, eta meza nausidxa iten due, ur bedekinkatu geo kanpuan ta geo ondoren berriz´e parrokira.
- Parrokira behera.
- (Joxe Migel) Behera. Bai, prosezidxoko parrokira jutun dia.
- A!
- (Joxe Migel) Bai. Eta geo izaten da, San Telmo bigarrenegun izaten da meza berriz´e. Hau izaten da, nola esaten da, "animien meza" esaten da. Arrantzaientzako meza izaten da.
- Hildako arrantzalian...
- (Joxe Migel) Bai. Eta geo ya [itxita] eoten da, ba.
- (Ana Mari) Lehenoz izaten zan...
- (Joxe Migel) Egun hortan bakarrik eoten da irikita, San Telmo egunian.
- San Telmo egunian eta [...]?
- (Ana Mari) Lehenoz Santa Rita...
- (Joxe Migel) A! Geo izaten zan San Pankrazio meza.

- Hori noiz da?

- (Joxe Migel) Doce de Mayo izaten da, ba. Eta jende asko juten zan, asko, jende asko.

- (Ana Mari) Eta Santa Rita.

- (Joxe Migel) Eta geo handikan aste betea izaten da Santa Rita eguna, veintitrés de Mayon hori´re. Han gutxidxo juten zian, baiño jende asko juten zan bestela´re. Eta geo sartu zian hemen parroikiko jende hoidxek eta... [habei] in behar zan meza berriz urtero, ta, ya ez, laga in behar zala ta [ez dakit ze ta badakit ze la cosa] ya oain mezik ez dala iten, ez San Pankrazio egunian ez Santa Rita egunian.

- Eta zergatik ospatzen zian Zumaiko San Pankrazio ta Santa Rita ta...

- (Ana Mari) Santuak dauelako bertan!

- (Joxe Migel) Fede asko asko zaken jendiak. Jendiak fede asko.

- (Ana Mari) Fedia jendiak! Aintziñatikan dator hori!

- (Joxe Migel) Fede asko.

- (Ana Mari) Santuak daude eleizan...

- (Joxe Migel) Han zaben. Bi dabe.

- (Ana Mari) ... Santa Rita ta zea hoidxek eta orduan nola santuak han dabezen...

- (Joxe Migel) Karo!

- (Ramon) Salbadorak ekarri zitun.

- (Joxe Migel) Bai.

- (Ana Mari) Bai eta ba, meza ateatzen zan. Baiña geo badakizu.

- (Joxe Migel) Urtero ta geo hola in zuen parroikidzak eta...

- (Ana Mari) Geo galaazi hasi in zan beste gauza asko bezela...

- (Joxe Migel) Karo.

- (Ana Mari) ...ta meza hoidxek kendu in dia. Kendu in dia meza hoidxek. Eta uan, ba, bodak eta...

- (Joxe Migel) Uain bodak bakarrik.

- (Ana Mari) ... bodak bakarrian.

2. 1950 inguruan ekarri ziren Santa Rita eta San Pankrazioren irudiak Zumaiaara

- **Erref:** ZUM-015/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Santa Rita eta San Pankrazio egunetan ere meza izaten zen San Telmo egunean. Parrokiko meza kendu eta arratsaldeko meza (zazpietakoa) San Telmoko ermitan egiten zen. Ez da ohitura zaharra. XX. mende erdi aldean ekarri zituzten irudiak Madrildik eta orduan hasi ziren mezak.</p>

Transkripzioa

- Zuek, orduan, ezautu dezuena da Santa Rita, San Pankrazio ta San Telmo

- (Joxe Migel) San Telmo, hiru hoidxek.

- Hiru hoiek. Eta nolakuak izaten zian mezak lehen?

- (Joxe Migel) Meza normala. San Pankrazio egunian tokatzen zan, klaro, nola izaten zan maiatza, ordun iten zan Parrokiko meza hara pasa, ta iten

zan errosaidxua ta geo ondoren meza.

- Eta esan dezu jende asko izaten zala?

- (Joxe Migel) San Pankrazio egunian bai, asko. Dana bete-bete-betia. En cambio, Santa Ritako egunian ya gutxidxo, baiño, halare, jendia juten zan.

- (Ana Mari) Bai, jende politta.

- (Joxe Migel) Jende politta juten zan.

- (Ana Mari) Uain dala denboa gitxi kendu due, e!

- (Joxe Migel) Pare bat urte o igual. Pare bat... o gehidxo?

- (Ana Mari) Gehidxo! Txomiñek kendu zian ta!

- (Joxe Migel) A!

- (Ana Mari) Txomiñek.

- Ta jai izaten zan San Pankrazio?

- (Joxe Migel) Ez, ez, ez, ez. Asteguna. Asteguna.

- Eta meza goizian?

- (Joxe Migel) Arrantsaldian zazpiretan. Zazpiretan izaten zan meza. Parrokikua kendu ta hara pasa zuen meza. Beste ezer ez.

- Eta hori lehenore bai, zuen gurasuen sasoian eta...

- (Ana Mari) Nik ez nun ezautu.

- (Joxe Migel) Nik'e ez.

- (Ana Mari) Antziña-antziña igual...

- (Ramon) Hor zeon lehenonek esan duna Ixiar Goimendin ama...

- (Ana Mari) Ama!

- (Joxe Migel) Salbadora.

- (Ana Mari) Salbadora.

- (Ramon) Salbadora ibiltzen zan. Ta hark tratuak bazezkan prailliakin ta...

- (Joxe Migel) Karo!

- (Ramon) ... Madridea're juten zan ta handikan dirua ekarri ta obrak iten zituen. Eta hark ekarri zitun berrogeta hamar buelta hortan ekarri zitun bi figura Madritikan, Santa Rita ta San Pancrancio. "San Pancrancio, salud y trabajo", ta horreatikan, horreatikan daka, zakan indarra.

- (Joxe Migel) Bai.

- (Ramon) Ta hori el año en el año cincuenta... ez dakit ze izango zan, tximistak jo zidxon ermitai. Ta gazta balitz [...], erdi-erditik ebaki zun ermita tximistak. Jende dana jun giñan ikustea, ebaki-ebakita. Ta orduan Eduardo Zubia ta juntatu zian, Valentin Manterola ta, in zuen proiektua. Hortxe Xixkolonian eon zan planua ta ez dakit nundik, aiuntamientuak lagunduta eo, in zuen obra haundixa.

3. San Telmoren inguruko tradizioa

- **Erref:** ZUM-015/011
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Badirudi San Telmoren ohitura Galizia ingurutik ekarri zela XVII. mende inguruan. Gipuzkoan ez da beste inon San Telmorik. San Telmo kalean ere bada, ustez San Telmorena den irudi bat, baina ez da San Telmo, San Isidro baizik. Zumaian oso sartuta dago: itsasontzien izenak, trainerua, umeen izenak, eta abar.</p>

Transkripzioa

- Eta historiya ta badakizue? Noiz sortu zan, ta... ez?
- (Joxe Migel) Nik ez... Nik ez dakit.
- Beti kofradiyakin ta...
- (Ana Mari eta Ramon) Bai!
- (Ana Mari) Guk hala ezautu gendun.
- (Ramon) Bai. Hori badazkidxe. Libruan [...] aitatzen dittu, bai, hamazazpi, hamazazpigarren gizaldidixan eo in zala eo. Berez esaten due, ez da hemen San Telmo... maiñelak ekarri zuen Galizitikan San Telmuen...
- (Ana Mari) San Telmua, bai, bai.
- (Ramon) ... San Telmuen asuntua, han zan, zea...
- Tradizidxua.
- (Ramon) Ta Donostidixan daon San Telmo Dominikua zalako ta prailliak jarri zuelako Museo San Telmo, Dominikuak jarri duelako. Bestela hemen Gipuzkuan iñun ez dao San Telmoikan. Eta hori berez maiñelak Galizidixan ibillita, handik ekarri omen zuan zea hori, Santo horren kontua. Bestela Euskal Herridixan ez dao San Telmoikan.
- Baiña, baiña Zumaidixan bai, ez? Beti izan du...
- (Ramon) Zumaidixan, beti, buelta hortan.
- (Ana Mari) Bai.
- (Ramon) Hara hasi zianian juten, Galizira juten zianian. Ta geo Calle San Telmon dao paetian bere imajen txiki bat, "Glorioso San Telmo". Baiño etorri dia teknikuak eta jendiak ibiltzen dia, eta...
- (Ana Mari) Ke ba! Ez da.
- (Ramon) Ez da San Telmo bizarra kenduta. San Telmok ez zakan bizarrikan.
- (Ana Mari) Ez.
- (Ramon) Ta kalian daona bizarrakin dao, baiño...
- (Ana Mari) Bizarrakin. Askok... Berez gazte-gaztia da. [...] horrela borobil-borobilla...
- (Ramon) Bai.
- (Ana Mari) Hola, zuk dakazun bezela.
- (Ramon) Santuak bai.
- (Ana Mari) Gazte-gaztia. Ta kalian daona zea baiño zaharro, nere aittaita baiño zaharro! San Isidro.
- (Ramon) San Isidro dala ematen du, bai.
- (Ana Mari) Barkun batek ekarri omen zun. Han jarri omen zuen, ta...
- (Ramon) Jarri ta han dao, kalian.
- (Ana Mari) San Telmon bezela. Ta nik esaten [zion] amai gaztio nitxala: "Nik ez det entenditzen hau nola dan! Eliza juten zea ta han Santua gazte-gaztia dao. Eta kalian zahar-zaharra. Zein da? Bere aitta al da, ba?", ta "Ez! Ekarri in ziñenan barko batian". Ekarri in ziyen ta hor jarri ta... San Telmo! Antziñako kontuak!
- Eta San Telmon inguruan bada tradiziyorik? Hala ba, San Blas gaixotasunak eta sendatzeko ta...
- (Denek) Ez!
- (Joxe Migel) Hori komentuan!
- (Ana Mari) Ez, ez, ez, ez! Baiño San Telmon ez.
- (Joxe Migel) San Telmon ez.
- (Ramon) Itsasoko barko batek "Glorioso San Telmo" izena zun...
- (Ana Mari) "Glorioso San Telmo" izena jarri zidxoen.
- (Ramon) Geo San Telmo itsasoko, itsasoko protektoria bezela. Oridxon San Nikolas dan bezela.
- (Ana Mari) Bai. Bai.
- (Ramon) Eta geo trainerak ere San Telmo [...].

- (Ana Mari) San Telmo. Oseake, San Telmo dao Zumaidxan oso Zumaikua...

- Oso sartuta, ezta?

- (Ana Mari) Oso sartuta dao.

- (Ramon) Bai. Umiak ere badabe izenakin, Telmo, badabe.

- (Ana Mari) Bai, Telmo eta izena? Bai.

- (Joxe Migel) Bai.

- (Ana Mari) Ta inkluso kanpuan ere bai. Kanpuan´e bai, kanpuan´e bai. Hemen ingurukuak o gurasuak hemenguak. Telmo jarrita, Telmo jarrita.

- (Ramon) Badabe, bai. Hoixen. Bestela...

- (Ana Mari) Ta bestela, berez, histori txikidxa, guk dakiuna, e!

- (Ramon) Ez. San Blasena bezela, bedeinkazidxua eta iten zianak...

- (Ana Mari) Bea sartu omen zuen uretan, urte batian, San Telmo, prozesidxuan!

4. San Telmo Egunean kaleak edertuta eta arrantzaleek jai

- **Erref:** ZUM-015/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Telmo Egunean kalea apaintzen zen, lorez, girnaldaz... San Telmo Eguna laneguna izaten zen. Egun horretan ez zen jairik. Arrantzaleek bakarrik ospatzen zuten, kofradia parean. San Telmo Egunean kanpoko fraide bat etortzen zen, eta arrantzaleak berekin konfesatzen ziren. Gutxienez urtean behin konfesatu behar izaten zen, eta Jauna hartu, eta batzuek egun hori aprobetxatzen zuten.</p>

Transkripzioa

- (Ana Mari) Belarrak ekartzen zian [...]...

- (Ramon) Arbustuakin.

- (Ana Mari) ... arbustuak hangiak eta lokarri batekin.

- (Joxe Migel) A, bai, e?

- (Ana Mari) Eta banderituak eta´re in ere bai.

- (Ramon) [...] moitzen hituan [...].

- (Ana Mari) Bai, bai, moitu ta. Musika´re jarri´re bai. Ta San Telmo San Isidro omen o San Telmo zein dan santu hori, hari nolako alfonbrak in ta.

- (Joxe Migel) A, bai, e?

- (Ana Mari) Oso! Dana lorez beteta, ta. Festa haundidxa zan.

- (Ramon) Baiño asteguna izaten da, astelehena, ta ez zan jai iten, e!

- (Ana Mari) Lana eukitzen zan.

- (Ramon) Lana iten zan!

- (Ana Mari) Maiñelak bakarrikan iten zun, maiñelak bakarrikan.

- (Ramon) Maiñelak bakarrik iten zuen jai.

- Mariñelak bai?

- (Ana Mari) Zahagidxa jartzen zuen kofraidxan azpidxan, zahagi bat, arduakin.

- (Ramon) Prozesidxua ta [...] lanian.

- (Ana Mari) Lanian. Ta gure aittak eta lanea jutun zian.

- (Ramon) Geo arratsaldian iten zuen jai.

- (Ana Mari) Bai, baiño maiñelak bakarrikan iten zun. Eta kofraidxak

ematen zun hamaiketakua, ematen zun, geo're eman zuen, ematen zuen. Eta kofrai azpidxan zahagi bat arduakin.

- Ardua?

- (Ana Mari) Ya kendu in zuen. Porke maiñelak danak uzten det zahagidxa...

- (Ramon) Mozkor-mozkor.

- (Ana Mari) Mozkor-mozkor inda. Baiña urte pillan eoten zan, hor zan zahagi hura.

- (Ramon) Iten zuen, ekartzen zuen, gaiñea, prozesidxuan juten beti praille bat. Ekartzen zuen parrokidxan kanpotikan praille bat. Eta konfeso ez, konfesionaidxuan eoten zan. Ta nola zeon jendia ez zuna nahi konfesatu herriko apaizakin, konfesatzen zian prailiakin. Pazkokua, Pascua Florida, Pazkokua esaten zikon, Pazkuetan jaunartu. Gutxidxenez urtien behin.

- (Ana Mari) Urtian behin. Lo que pasa que gaztia da horretako...

- (Ramon) Elizak obligatzen du urtian behin gutxidxenez komulgatu in behar zala. Ta bazan, pertsonak bazian, urtian behin konfesatu ta jaunartzen zuenak. Ta orduantxe iten zuen. Halakotxe deskantsua hartzen omen zun jendiak, arratsian danak mozkortu!

- (Ana Mari) Mozkortuta!

- (Ramon) Ta praille hura prozesidxuan juten huan!

- (Joxe Migel) A, bai?

- (Ana Mari) Lo que pasa que uan zaharrik ez dao, baiño, gure, Juanito nere lehengusuen ta, Luis [Peraso] ... Jexus... ez! Inaxio [Peraso] aintziñakuak arrantzaliak...

- (Ramon) A. Bai, bai...

- (Ana Mari) Eta San Telmo biarrenian nola izaten dan meza, orduan iten due askoek oan.

- (Joxe Migel) Pazkoko?

- (Ana Mari) Pazkokua.

- (Joxe Migel) A!

- (Ana Mari) Lo que pasa que ya edade hortakuak ez daude.

5. San Telmoren relikia

- **Erref:** ZUM-015/018
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Zumaiako parrokian San Telmoren "relikia" bat dago. Ustez, San Telmorena omen zen hezur zati bat. Zilar koloreko kutxatxo bat da eta barruan hezurra.

6. San Telmoetan, 4 egunez musika

- **Erref:** ZUM-015/021
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:37:30. **Bukatu:** 00:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Lehengo San Telmoetako egitaraua: bezperan (igandea) musika, San Telmo egunean (astelehena) jaia moilan, eta San Telmo bigarrenean (asteartea) eta hirugarrenean (asteazkena), arratsaldez musika. Gaur egun Zumaian ez da itsasontzirik geratzen, baina inguruko herrietan badira arrantzale batzuk.

Transkripzioa

- (Ramon) Ta hiru egunian eoten zian [...].
- (Ana Mari) Hiru gaba iten zian.
- (Ramon) Itxafero batzuk bota...
- (Ana Mari) Itxaferuak bota ta kofraiko aurrian iten zan dantza hiru gaba.
- (Ramon) Han ibiltzen zian hiru gaba.
- (Ana Mari) Oseake, San Telmo bezpean arratsaldian izaten zan dantza.
- Bezperan.
- (Ana Mari) Bai, bezpean. Gabian ez. Geo, San Telmo egunian egun guztidzan festa, itxaferuak behintzat bai, eta zahagi eguna´re bai, han arduakin ta...
- (Ramon) Bai.
- (Ana Mari) Hamaiketakua´re bai, kofraidzan pikuak eta gauzak.
- (Ramon) Han kabitu eziñik dantzan jendia.
- (Ana Mari) Ez [...] kabitzen!
- (Ramon) Mollaiño.
- (Ana Mari) Oseake, kofraiko plazuletan ta mollar iten zan, ta mollar.
- (Ramon) Kuadro txiki hura, mollar´e jendia.
- (Ana Mari) Eta geo, San Telmo bigarrenian eta hirugarrenian gabian.
- (Ramon) Gabian, lanetik erten...
- (Ana Mari) Lanetikan erten ta orkesta jartzen zan.
- (Ramon) Jende gaztia dantza iten.
- (Ana Mari) Bai, orduan han iten zan.
- Astelehenetan.
- (Ramon) Astiartia, asteazkena.
- (Ana Mari) Asteartia ta asteazkena. Oseake, San Telmo egunian, egun guztidzan...
- (Ramon) Ta geo, repetizidxuak.
- (Ana Mari) Eta geo, San Telmo bigarrena ta San Telmo hirugarrena iten zan.
- (Ramon) Hirugarrena.
- (Ana Mari) Eta geo repetizidxuak.
- (Ramon) Repetizidxuak.
- Aste batea.
- (Ana Mari) Bai, San Telmo... Baiño oaingua da...
- Eta gehixenbat, orduan, mariñelena eta...
- (Ana Mari) Mariñelena.
- (Joxe Migel) Bai.
- (Ramon) Bai, bai, bai. Maiñelak zien, barko hoidxek. Eta geo zeon, uaindik´e badabe jendia itsasuan lan iten duna Oridxon ta zea... maiñelak mutillak...
- Getaixan ta...
- (Ana Mari) Getaidzan ta bai...
- (Ramon) Getaidzan... Badabe, badabe uandikan ere, baiña Zumaidzan barkuik ez da bat bea´re geatu. Baiña maiñelak itsasuan asko. Ta geo marina merkanten ta kanpuan eongo dia, e? Ez dakit zein dauden... batzuk...
- (Ana Mari) Ez dakit! Ez dakit!
- (Ramon) Batzuk eongo dia...

- (Joxe Migel) Nik ez dakit.
- (Ana Mari) Bueno, hemendikan maiñelak bai, kanpoa juten dianak. Baiño bertan...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com